

GOBERNU BATZARRA

2014. 03. 21

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko martxoaren hogeita batean, goizeko 10:00etan
- Ibai Iriarte San Vicente** Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
- Zinegotziak:**
- Lore Agirre Zipitria**
Rosa M. Urkola Irigoien
Iñaki Xabier Irazabalbeitia
Fernandez.
- Idazkaria:**
- Jose Luis Unanue Ugalde**
- Kontuhartzaitzako Teknikaria:**
- Paulino Alonso Eraso.**
- 1.- Aurreko akta onartzea.
 - 2.- Udal Euskaltegia: Ikasle baten eskaera.
 - 3.-Arkitekto aholkularia kontratatzeko oinarriak onartzea.
 - 4.-Albizturgo Udalarekin sinatzeko hitzarmen proposamena: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan orokorraren aldaketa puntualerako, Tolosako "28 Albiztur" esparruan herri mugak aldatzeko eta Pasaban, SA, ekoizpen-planta handitu ahal izateko.
 - 5.- Tolosako N-1aren Ipar loturan birigilbune bat eraikitzeko obren 2. ziurtagiria (10/14 faktura).
 - 6.- lurramendi egoitza: Otsaileko kuota.
 - 7.- Urkizu eta Aldabako 2014ko dirulaguntzak.
 - 8.- Naturaldia 2014: Dirulaguntza.
 - 9.-"Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana eta Diagnostikoa egitekoa" kontratua adjudikatzea.
 - 10.- 6/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko martxoaren 14an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Udal Euskaltegia: Ikasle baten eskaera.

A.M.L.k Udal Euskaltegiko Autoikaskuntzako ikastaroan matrikulatu zen Irailean. Hala ere hilabete bat baino ez zuen egin ikastaroan.

Kontuan hartuta Euskara Zerbitzuruak aurtengo martxoaren 13ko datarekin egindako txostena, eta ikusirik Hezkuntza Politikako batzorde burua eta gainerako kideak ados zeudela aipatu txostenarekin, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **A.M.L.** ri 316 euro kobratzea, hau da, autoikaskuntzako matrikularen erdia, ikastaroaren hilabete bakarra egin zuelako eta bere ordeztu beste ikasle bat ere matrikulatu zelako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hezkuntza Politikako departamentuari eta interesatuari.

3.- Arkitekto aholkularia kontratatzeako oinarriak onartzea.

Arkitekto aholkulari zerbitzua, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, kontratatzeako baldintza administratibo partikularren plegua ikusita, eta Hirigintza batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Arkitekto aholkulari zerbitzua kontratatzeako espedientea onartzea.

BIGARRENA.- Zerbitzua kontratatzeako gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu hori prozedura negoziatuaren bidez eta publizitaterik gabe kontratatzeako Baldintza administratibo partikularren agiria onartzea.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, bidezko gonbidapenak eginez.

4.-Albizturgo Udalarekin sinatzeko hitzarmen proposamena: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan orokorraren aldaketa puntualerako, Tolosako "28 Albiztur" esparruan herri mugak aldatzeko eta Pasaban, SA, ekoizpen-planta handitu ahal izateko.

Tolosako "28. Albiztur" esparruan, Pasaban, SA ekoizpen-planta handitu ahal izateko, Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualerako, Albizturgo Udalarekin sinatzeko hitzarmen proposamena aurkeztu zaio Batzarrari.

Hitzarmena aztertuta, Gobernu Batzar honek, Hirigintza Batzordeak martxoaren 14an egin duen diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENENA.- Tolosako "28. Albiztur" esparruan, Pasaban, SA ekoizpen-planta handitu ahal izateko, Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualerako, Albizturgo Udalarekin sinatzeko hitzarmena onartzea. Aipatu hitzarmena espedientean agertzen da Idazkariak diligentziatuta.

BIGARRENA.-Alkatea ahalmentzea beharrezko dokumentuak sinatzeko Udalaren izenean.

5.- Tolosako, N-1aren Ipar loturan biribilgune bat eraikitzeko obren 2. ziurtagiria (10/14 faktura).

Bi mila eta hamahiruko azaroaren 29an sinaturiko 2013/1658 zenbakidun alkate dekretu bidez, Construcciones Amenabar, S.A., enpresari esleitu zitzaion Tolosako N-laren Ipar loturan biribilgune bat eraikitzeko obren kontratua, 411.588,62E. izen zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila eta hamalauko otsailaren 17an, Construcciones Amenabar,S.A., enpresak 2. ziurtagiria aurkeztu du, 749,16 €-koa.

Ziurtagiri hau aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENENA.- Onartzea Tolosako N-laren Ipar lotural biribilgune bat eraikitzeko bigarren ziurtagiria (fak zkia: 10/14), 749,16 €koa (BEZa barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Construcciones Amenabar, S.A., enpresari eta Kontuhartailetzari.

6.- lurreamendi egoitza: Otsaileko kuota.

lurreamendi egoitzak otsaileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- lurreamendi egoitzari ordaintzea otsaileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 30.130,76 €-koa, honela banatuta:

- Autonomoen kostua: 1.069,48 €
- Elbarrien defizita: 29.034,28 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

7.- Urkizu eta Aldabako 2014ko dirulaguntzak.

Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Urkizu eta Aldabako %50eko dirulaguntza aurreratzea: hau da, Urkizurako 2.875 euro eta Aldabari 2.675€.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo departamentuari eta interesatuei.

8.- Naturaldia 2014: Dirulaguntza.

Naturaldiak 25 urte egiten ditu aurten eta hainbat ekintza egingo dira Tolosa, maiatzaren 10ean.

Hortaz, Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Urtero bezala 6.000€-ko dirulaguntza ematea Naturaldia 2014 antolatu duen erakundeari (Gestonatura)ri.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo departamentuari eta Naturaldiari.

9.- “Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana eta Diagnostikoa egitekoa” kontratua adjudikatzea.

Gobernu Batzarrak, 2014ko urtarrilaren 24an egindako bileran, honako kontratazio espedientea onartu zuen: “Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana eta Diagnostikoa” egitekoa.

Gonbidapenak egin ondoren, lizitatzaille hau aurkeztu da: ABEE Oreka Sarea, S.L.-Betean Auditoria S.L.P.

Berdintasun Teknikariak egindako txostenaren arabera, aurkeztutako dokumentazioa egokia da eta ABEE honen alde kontratazioa egitea proposatu zuen.

Horretan oinarrituz, 2014ko otsailaren 26ko dekretuz, errekerimendua egin zitzaion bertan aipatutako dokumentuak ekar zitzaion.

Emandako epe barruan aurkeztu ditu eskatutako dokumentuak.

Beraz, aipatutako kontuan izanik eta Berdintasun Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Adjudikatzea Oreka Sarea, S.L.- Betean Auditoria S.L.P., enpresek osatutako ABEEri ondorengo kontratua: “Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana eta Diagnostikoa egitekoa”.

- **1 Lotea:** Diagnostikoa, gehienez 14.462,81€+ % 21BEZari dagozkion 3.037,19 euro. Guztiz 17.500 euro.
- **2. Lotea:** Berdintasunerako III. Plana, gehienez 14.462,81 euro + %21 BEZari dagozkion 3.037,19 euro. Guztiz 17.500 euro.

BIGARRENA.- Kontratuaren formalizazioa profileen argitaratzea eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean, ebazpen honen datatik kontatuta, berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea ABEEri Berdintasuna departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

9.- 6/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **6/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; 192.796,39 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 6/2014 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.

ALKATEA

IDAZKARIA